

2020an, Euskal AEn 24.247 pertsona hil ziren; 3.096, COVID-19aren ondorioz

Heriotza-kopuruak % 12,5 egin zuen gora, aurreko urtearekin alderatuta

Euskal AEn, 2020an, 24.247 heriotza izan ziren; alegia, % 12,5eko gorakada egon zen, 2019aren aldean, Eustatek emandako behin betiko datuen arabera. Lurraldeen arabera, gorakada nabarmenena Araban izan zen, % 19,3 egin baitzuen gora; ondoren, Gipuzkoan (% 12,8ko gorakada), eta, azkenik, Bizkaian (% 10,7ko gorakada).

2020an, 3.096 heriotza nagusiki COVID-19aren ondorioz gertatu ziren, heriotza guztien % 12,8. Heriotza horiek 2 taldetan sailkatzen dira: analisi bereziaren bidez egiaztatutako COVID-19aren ondoriozko heriotzak (2.775 heriotza) edo ustezko COVID-19aren ondoriozkoak, zeinak analisi bidez egiaztatu ez baitira baina parte medikoan COVID-19a heriotzaren kausa nagusia baita (321 heriotza).

Euskal AEko heriotzak, bizileku-lurralde historikoaren eta -udalerriaren (>40.000 biztanle), sexuaren eta adinaren arabera, COVIDarekin lotutako heriotza-kausen tipologiari jarraiki. 2000


	Heriotzak guztira	COVID-19 guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probalea
Euskal AE	24.247	3.096	2.775	321
Bizileku-lurralde historikoak				
Araba/Álava	3.266	595	538	57
Bizkaia	13.243	1.629	1.444	185
Gipuzkoa	7.738	872	793	79
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)				
Barakaldo	1.272	161	135	26
Basauri	552	99	86	13
Bilbao	4.512	626	569	57
Donostia / San Sebastián	2.174	252	234	18
Errenteria	436	46	41	5
Getxo	791	92	77	15
Irun	642	48	41	7
Portugalete	584	45	40	5
Santurtzi	549	57	50	7
Vitoria-Gasteiz	2.439	496	457	39
Sexua				
Gizonezkoa	12.056	1.582	1.424	158
Emakumezkoa	12.191	1.514	1.351	163
Adina				
40 urtetik beherakoak	247	10	10	0
40 eta 59 urte bitartean	1.544	78	70	8
60 eta 79 urte bitartean	6.693	755	696	59
80 urtetik gorakoak	15.763	2.253	1.999	254

Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Lurraldeen arabera eta termino absolutuetan, Bizkaia izan zen kausa horren ondoriozko heriotza-kopuru handiena izan zuen lurraldea (1.629), ondoren Gipuzkoa (872) eta, azkenik, Araba (595). Heriotza horiek heriotza guztiekin alderatuta, Araban COVID-19aren ondoriozko heriotza-kopurua heriotza guztien % 18,2 izan zen, Bizkaian % 12,3 eta Gipuzkoan % 11,3. Hiriburuak direla eta, Bilbo nabarmentzen da (626 heriotza COVID-19aren ondorioz, % 13,9); ondoren, Vitoria-Gasteiz (496 heriotza, % 20,3), eta Donostia (252 heriotza, % 11,6). Halaber, Barakaldo, Basauri eta Getxo nabarmentzen dira, kausa horregatik 161 (% 12,7), 99 (% 17,9) eta 92 (% 11,6) heriotza izan baitituzte, hurrenez hurren.

COVID-19aren ondorioz hil zen gizonen kopurua handiagoa izan zen emakumeena baino: 1.582 gizon eta 1.514 emakume. Adinaren arabera, COVID-19aren ondoriozko heriotzen % 72,8 80 urtetik gorakoenak izan ziren.

Hilen arabera, apirilean gertatu ziren COVID-19aren ondoriozko heriotza gehien (1.065), baina hilen araberako bilakaera desberdina izan zen lurralde bakoitzean, izan diren olatuetan. Araban, kausa horregatik heriotza-kopuru handiena martxoan eta apirilean izan ziren; Bizkaian, apirilean, irailean eta abenduan, eta, Gipuzkoan, apirilean eta azaroan.



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Gainera, beste 173 heriotzatan COVID-19a ziurtatutako heriotza-kausen artean egon zen, baina ez zen funtsezko kausa izan.

Oro har, hildako pertsonen batez besteko adina 81 urte izan ziren, hamar urte lehenago baino ia hiru urte gehiagokoa

2020an hildakoen kopuru osoa aintzat hartuta, 12.056 gizon hil ziren eta 12.191 emakume, eta hildako pertsonen batez besteko adina, 2020an, 81 urte izan zen, eta, hamar urte lehenago, 2010ean, 78,1; alegia, azken hamarkadan 2,9 urteko gorakada egon da.

Gizonak batez beste 77,8 urterekin hil ziren eta emakumeak, 84,2 urterekin, 2020an; 2010ean, 74,7 urterekin eta 81,8 urterekin, hurrenez hurren. Ondorioz, azken 10 urte hauetan, gizonen heriotzaren batez besteko adinak 3,2 urte egin du gora eta emakumeenak, 2,3 urte.

Haurren heriotza-tasa dela eta, urtebeteko 39 adingabe hil ziren Euskal AEn. Jaioberrien heriotza-tasa dela eta, lehen 28 bizi-egunetakoa, 27 heriotza egon ziren; horietatik, 4 lehen 24 orduetan eta beste 13 lehen astean zehar. Urtebetetik beherakoen artean, mutikoen heriotzak guztizkoaren % 56,5 izan ziren.

2020an, 100 urteko edo gehiagoko 409 pertsona hil ziren (1920an edo lehenago jaiotakoak); haien artean, % 82,4 emakumeak ziren. Ehun urtetik gorako pertsonen artean 31 heriotza gehiago egon ziren 2019an baino.

Hazkuntza begetatiboa negatiboa izan zen hiru lurraldeetan

Hazkuntza begetatiboa negatiboa izan zen; izan ere, jaiotzak baino 9.508 heriotza gehiago egon ziren. Lurraldeen arabera, saldo negatiboak izan ziren hiru lurraldeetan: Bizkaian, 5.925 pertsona; Gipuzkoan, 2.714, eta, Araban, 869.

Iazko urtearen aldean, saldo negatibo hori % 54,8 hazi da, baina gorakada hori ia osorik da COVID-19agatiko heriotzen ondoriozkoa; izan ere, heriotza horiek kenduz gero, hazkuntza begetatibo negatiboa 6.412 da.

Heriotzen % 25,7 tumoreen ondoriozkoa izan zen

2020an izandako heriotzen % 25,7, alegia 6.223 heriotza, tumoreen ondoriozkoa izan zen; ondoren, zirkulazio-aparatuko gaixotasunen ondoriozkoa (% 23,1, alegia 5.611 heriotza); gero, COVID-19aren ondoriozkoa (% 12,8, alegia 3.096), eta, azkenik, buruko eta portaeraren nahasmenduen ondoriozkoa (% 7,3, alegia 1.774).

Heriotzen motiboak desberdina izaten jarraitzen du, sexuaren arabera; izan ere, gizonen artean, tumoreek gairitu egin zituzten zirkulazio-aparatuko gaixotasunak, eta, emakumeen artean, kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren eta, ondoren, tumoreak. Gainera, nabarmendu behar da buruko eta portaeraren nahasmenduen ondoriozko heriotzen artean emakumeen ehunekoa handiagoa dela, eta kontrakoa gertatzen dela kanpo-kausak eragindakoetan, non gizonen ehunekoa handiagoa baita.

Euskal AEko heriotzak, kausaren eta adinaren arabera. 2020

	Guztira	Urte batetik beherakoak	1-19 urte bitartekoak	20-39 urte bitartekoak	40-59 urte bitartekoak	60-79 urte bitartekoak	80 urte gorakoak
Guztira	24.247	39	33	175	1.544	6.693	15.763
I. Gaixotasun infekzioso eta parasitario batzuk	293	1	1	4	24	66	197
II. Neoplasia	6.223	0	13	40	709	2.927	2.534
III. Odoleko eta odol-sortzaileetako gaixotasunak, immunitate-mekanismoen arazo batzuk	112	0	0	2	4	21	85
IV. Gaixotasun endokrinak, nutrizionalak eta metabolikoak	705	1	1	2	40	180	481
V. Trastorno mentalak eta portaeraren trastornoak	1.774	0	0	0	13	199	1.562
VI - VIII. Nerbio-sistemako eta zentzumen-organismoetako gaixotasunak	1.468	1	4	8	56	320	1.079
IX. Zirkulaziosistemako gaixotasunak	5.611	0	1	18	265	1.234	4.093
X. Arnas sistemako gaixotasunak	1.547	1	3	12	48	305	1.178
XI. Txegoste-sistemako gaixotasunak	986	0	1	6	84	278	617
XII. Larrazaleko eta larrazalpeko ehuneko gaixotasunak	89	0	0	0	0	18	71
XIII. Sistema muskulo-eskeletikoaren eta ehun konektiboaren gaixotasunak	278	0	0	0	4	40	234
XIV. Sistema genito-urinarioko gaixotasunak	630	0	0	1	10	86	533
XV. Haurduntza, erditzea eta erdiberriroa	1	0	0	1	0	0	0
XVI. Jaiotgintzaren denboraldian sortutako egoera jakin batzuk	22	21	0	1	0	0	0
XVII. Sortzetiko malformazioak, deformazioak eta kromosoma-anormalitatea	48	13	1	4	6	15	9
XVIII. Sintomak, zeinuk eta emaitza klinikak eta laborategiko anormalak	614	0	0	3	15	63	533
XX. Kanpo-kausak	750	1	7	64	188	186	304
COVID-19 baieztatuta	2.775	0	1	9	70	696	1.999
COVID-19 probalea	321	0	0	0	8	59	254

Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Era berean, heriotza-kausa aldatu egiten da adinarekin. Urtebetetik beherakoetan, heriotza ohikoenak jaiotza inguruko denboraldian sortutako gaixotasunen eta sortzetiko malformazioen ondoriozkoak izan ziren; urtebetetik 39 urtera bitartean, heriotza-kausa nagusiak kanpo-kausak izan ziren, besteak beste istripuak eta suizidioak; 40 urtetik 79 urtera bitartean tumoreak izan ziren lehen heriotza-kausa eta, 80tik aurrera, zirkulazio-sistemako gaixotasunak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62